

EUSKO JAURLARITZA

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

*Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia*




GOBIERNO VASCO

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

*Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación*

IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLAN OROKORRA ONARTZEN DUEN HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA (2014-2017)

HEZKUNTZA IKUSKARITZA E.A.E





HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, 2014-2015eko, 2015-2016ko ETA 2016-2017ko IKASTURTEETARAKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLAN OROKORRA ONARTZEN DUENA.

1.- SARRERA

Plan Orokor honek Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera-ildo nagusiak zehazten ditu 2014-2015eko, 2015-2016ko eta 2016-2017ko ikasturteetarako eta gobernuko 2012-2016 egungo programak bikaintasunarekin, hezkuntza-sistemaren eragile bezala, duen konpromisoarekin bat dator. Hiritarren garapen pertsonala zein profesionala eta konpetitibitatea hezkuntza-sisteman lortzen den mailaren menpekoak dira, beraz hau bikaitasunerantz eta berriztapenarantz bideratu behar da, hezkuntzak XXI mendeko erronkei bermez aurre egin diezaion. Helburu honi laguntzeko asmoz Programa Orokor honek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskuhartzea indartzen du zuzendaritza taldeen eta irakasleen garapen profesionalaren hobekuntzarako ekintzen bitartez, hauek Hezkuntza Sistemaren gunean kokatzen den ikaslearen mesederako bultzatzen den berriztapenaren sustatzaileak bezala. Ikasturte bakoitzean egin beharreko esku-hartzeak konkretatuko dituzten Urteko Planetan garatu beharko dira ildo horiek.

2004-2005eko ikasturtetik aurrera sistematikoki jaso da Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko eta beraien premiei eta itxaropenei buruzko informazioa. Ondorioz, Ikuskaritzak bere funtzionamenduan hobekuntzak sartu ditu eta, halaber, kalitatea kudeatzeko sisteman aurrerapausoak ematen zituen; izan ere, ISO 9001:2008 arauaren bidez ziurtatuta eta AENORREK egindako kanpo auditorien bidez kreditatuta zegoen kalitatea kudeatzeko sistema hori.

Gainera, azken ikasturtetan, eta ondorengo puntuen ondorioz, Hezkuntza Ikuskaritzaren lanak gaurko eredurantz eman ditu urratsak:

- Ikastetxeetan perspektiba global batekin esku hartzeko premia antzematea,
- ebaluazioaren eremuko jardueri, zuzendaritza-funtzioari batez ere, eman zaien gero eta garrantzi handiagoa,
- Sailaren arau, plan eta proiektu berriak ezarri izanaren ondorioz sartutako aldaketak,
- emaitza akademikoak hobetzeko eta hezkuntzaren helburuak lortzeko dauden bitartekoak eraginkortasunez erabiltzeko gizartearen esijentzia,
- aholkularitza-, orientabide- eta informazio-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzari esijitzen dioten dedikazio handiagoa,
- beste administrazio-erakunde edo atal batzuetatik datozen jarduera eta eskaerak areagotzea,
- esku hartzeko protokoloak hobetzea.

Horrela oinarri irmo batzuk finkatu dira, Hezkuntza Ikuskaritzari hurrengo hirurtekoari proposamen berriei aurre egiteko aukera emango diotenak.

Datorren hirurtekoari begira aurre egin beharreko eginkizunen artean, ikastetxeetan izan beharreko esku-hartzea nabarmendu nahi da bereziki.

Ikastetxeetan esku hartuz, irakaskuntzaren kalitate eta zuzentasunerako faktorea izateko hezkuntza-legeriak esleitzen dion funtzioari ematen dio Hezkuntza Ikuskaritzak erantzuna. Esku-hartze horrek, araudia betetzea ikuskatzea ez ezik, haien hezkuntza-proiektuak



garatzeko orduan ikastetxeei eman beharreko laguntza eta aholkularitza ere hartzen ditu eta, horretaz gain, ikastetxeak hobetzeko lagungarri da, autoebaluazio-prozesuak sustatuz eta kanpo ebaluaziokoetan parte hartuz.

Ondorioz, Hiru Urteko Plan Orokor hau indarrean egon den hiru ikasturteetan ikastetxeen ikuskaritza sustatuko da, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun onena emateko lagungarri izango diren antolaketa- eta curriculum-alderdiak aztertuz, ikuskariaren bisitaren bidez ikastetxearen ikuspegi globalean gero eta gehiago sakonduz; izan ere, ikuskariaren bisita horrek gero eta antolaketa- eta didaktika-egitura gehiago hartuko ditu, gelen funtzionamenduaren azterketara eta irakasleen ebaluaziora iritsi arte.

Esku hartzeko era horrek eduki profesional handiko prestakuntza eskatzen du. Horregatik, garapen profesionalerako tokia eta ikasteko antolaketa izan behar ditu Hezkuntza Ikuskaritzak, urteko planetan planifikatzen diren prestakuntzarako esku-hartzeen eta kideek taldeka egiten duten lanaren bidez.

Bestalde, Hiru Urteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldiari berrikusiko dira Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeke gure Autonomia Erkidegoan emandako arau-xedapenak. Gaur egun araudi hau dugu:

- Abenduaren 11ko 342/2001 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa arautzen duena (2001-12-21eko EHAA).
- Abenduaren 11ko 343/2001 DEKRETUA, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzeko erregimen espezifikoak zehazten duena (2001-12-21eko EHAA).
- Urtarrilaren 13ko 3/2009 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duena (2009-02-23ko EHAA).
- 2002ko ekainaren 18ko AGINDUA, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituen araudi (2002-07-02ko EHAA).

Hiru Urteko Plan Orokor honek puntu hauek sartzen ditu: Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoaren eta estrategien gaurko formulazioa, helburu orokorrak, kalitatea kudeatzeko ziurtatutako sistemari erantzuna ematen dioten makroprozesuak hartzen dituen prozesuen mapa eta prestakuntzari, euskalduntzeari, zerbitzuen antolaketari eta Hiru Urteko Plan Orokorren ebaluaziora buruzko alderdiak.

2.- XEDEA ETA ESTRATEGIAK

Aurreikuspenen arabera, Hiru Urteko Plan Orokor honen aldiari Ikuskaritzaren politika eta strategiaren analisia eta egokitzapena sartuko dira. Berrikuspen horretan egitekoa, ikuspegiak, baloreak eta estrategiak sartzen dira eta haien gaurkotzea datorren 2014-2015eko ikasturtean gauzatu da. Ondoren gaurko formulazioa erakusten da:

XEDEA: ondorengo da Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritzaren egitekoa:

1. Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea eta horri buruz aholkularitza eta informazioa ematea.
2. Kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzen laguntzea.
3. Ikastetxeak, haien pertsonala eta emaitzak ebaluatzea.
4. Hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinen eskubideak bermatzea.
5. Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea.

**IKUSPEGIA: Ikuskaritzak helburu hauek ditu:**

1. Esleituta dituen funtzioak irizpide teknikoan arabera eta kanpoko presioak alde batera utzita egitea.
2. Haren kideak ondo prestatutako profesionalak izatea, informatuta egotea eta etengabe eguneratzearen aldeko konpromisoa hartzea.
3. Kalitateko hezkuntza bat jasotzeko hezkuntza-erkidegoko kide guztien, ikasleena batez ere, eskubidea bermatzea.
4. Ekipoan, era koordinatuan eta irizpide bateratuen arabera lan egitea.
5. Hezkuntza-erkidegoaren begirunea eta aitorten soziala mereziaraztea.
6. Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.
7. Hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuan etorkizunari begirako ikuspegiarekin liderra izatea eta berorren arazoei aurrea hartzea.

BALOREAK: ondorengoak dira gure portaera eta jarreraren erreferentzia diren baloreak:

1. Profesionaltasuna: autonomia, begirunea, zintzotasuna eta ardura.
2. Etengabe hobetzearen aldeko jarrera.
3. Eskaerei arin erantzutea: eraginkortasuna.
4. Talde-lana.

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ESTRATEGIAK: Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko, ondorengo jarduerak egin beharko lirateke:

1. Haren funtzioak betez, hezkuntza-erkidegoko kide guztien eta Hezkuntza Administrazioako arduradunen premiei eta itzaropenei erantzuna ematea.
2. Hezkuntza-erkidegoko kide guztiek egindako eskaerei eman beharreko arreta hobetzea.
3. Hezkuntza Ikuskaritzari eta haren funtzioen esparruan gauzatzen dituen jardueri eragiten dituen legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
4. Ikastetxetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
5. Era planifikatuan, koordinatuan eta taldeka lan egitea, agindutako lana denboraren arabera antolatuz eta ikuskarien artean zuzen banatuz.
6. Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
7. Hezkuntza Ikuskaritzaren komunikazio-bideak, barne eta kanpokoak, hobetzea.
8. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueri dagozkien exigentzia eta premietara egokitzeko behar den malgutasunaren arabera jokatzeko.
9. Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan izan daitezkeen akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatzea. Horrela prozesu horiek eraginkorragoak izango dira.
10. Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duten pertsonen ezagutza sustatzea.
11. Lurralde Ordezkaritzetako arduradunekiko eta Hezkuntza Saileko zerbitzu desberdinekiko koordinazioa hobetzea.



3.- HELBURU OROKORRAK

Hiru Urteko Plan Orokor honekin helburu orokor hauek lortu nahi dira:

1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.
2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzailen premiei eraginkortasunez erantzutea.
3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko, indarreko legeria beteko dela ikuskatzea.
4. Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetan gauzatzen dituen programa eta proiektuen garapena kontrolatu eta ebaluatzea.
5. Ikuskariak Hiru Urteko Plan Orokor honen ondoriozko premien arabera prestatzea.
6. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz euskararen erabilpena sustatzea.
7. Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredua berrikustea.
8. ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeatzeko sisteman aurreratzea.
9. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.
10. Hezkuntza-munduko beste organismo edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko ildoak ezartzea.

4.- HELBURUAK GARATZEKO ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK.

Hiru Urteko Plan Orokor honen esku hartzeko oinarrizko ildoak aurreko atalean adierazitako helburuak lortzeko behar diren jardueren eremua dira. Hiru Urteko Plan hau, helburuak eta oinarrizko jarduera-ildoak egiteko erabilitako iturriak, besteak beste, hauek nabarmentzen dira:

- Ondorioak, aurreko planen ebaluazioan lortutako emaitzetatik abiatuz,
- Ondorioak, Lurralde Arteko Batzordean egindako aurreko planaren jarraipenetik abiatuz eta ikuskarien, zonalde burutzen bidez, parte-hartzearekin,
- Ondorioak, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaille nagusien premiak eta itzaropenak jasotzeko ezarritako prozeduretatik abiatuz.

Hiru Urteko Plan Orokor honen I. eranskinean adierazten dira oinarrizko ildoei lotutako esku-hartzeak.

4.1 Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.

Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioen artean, besteak beste, hezkuntza-sistemaren eta berori osatzen duten elementuen ebaluazioan parte hartzea dago. Zentzu horretan, EAEn, erroldaizaerarekin, egin diren azken kanpo ebaluazioetan Ikuskaritzak izan duen funtzio inportantea azpimarratu behar da. Alde batetik, probak ikastetxeen lagin batean nola aplikatu diren kontrolatu du Ikuskaritzak eta, bestetik, ebaluazioaren emaitzei erantzuna emateko ikastetxeek egindako hobekuntza-planak baloratu ditu.

Aurreikuspenen arabera, Hiru Urteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian beste diagnostiko-ebaluazio bat egingo da 2014-2015eko ikasturtean. Zirkunstantzia hori dela-eta, ikasturte horretan Hezkuntza Ikuskaritzak proba nola aplikatzen den kontrolatuko du eta 2015-16ko ikasturtean zehar ikastetxeen hobekuntza-planen balorazioa egingo du. Gainera,



kanpo ebaluazio mota horretan parte hartzen duten ikastetxeen hobekuntza-planen jarraipena egiten du, ikasturtez ikasturte, Ikuskaritzak.

Azkenik, hau adierazi behar dugu: 2/2006 legeak, 8/2013 legearen bidez aldatuak, xedatzen duenez, datozen ikasturteetan Lehen Hezkuntzako 3.ean eta 6.ean, DBHko 4.ean eta Batxilergoko 2.ean egingo dira ebaluazioak. Ez daude zehaztuta aipatutako ebaluazioetan erabiliko diren prozedura eta metodologia eta, horregatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak xedatuko duenaren arabera esku hartuko du Ikuskaritzak.

4.2 Ikastetxeak hobetzen laguntzeko zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa bost ikasturtetan gauzatu du Hezkuntza Ikuskaritzak eta funtzio hori hobeto betetzen laguntzea du ebaluazio horrek helburu, ebaluazio-prozesuari buruz argitara eman diren aginduak erreferentziatzat hartuz.

Ebaluazio-prozesu hau lau urteko alditan gauzatzen da eta zuzendaritza-funtzioa hobetzen laguntzea du helburu nagusia (prestakuntza-ebaluazioa), baita, aldi honen bukaeran, identifikatutako dimentsioak behar adina lortu diren egiaztatzea ere (bildumazko ebaluazioa edo azken ebaluazioa).

Gaur indarrean dagoen dekretuaren arabera selekzionatutako bi zuzendari-belaunaldien lehen aldiaren ebaluazioa osatu ondoren, izandako esperientziaren baloraziotik abiatuz berrikusi behar da prozedura. Aurreikuspenen arabera, Hiru Urteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldian zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotuko da.

Zuzendaritza-karguei funtzioak hobeto betetzen laguntzeko asmoz ebaluazio-prozesuan esku hartzen jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak eta horrela ikastetxeen funtzionamendua eta, horrekin batera, ikasle bakoitzaren hezkuntza-emaitzak hobetzeko izango da lagungarri. Horretarako, laguntza- eta jarraipen-lanak egiten jarraituko du, datuak alderatzeko eta hausnarketa egiteko erraztasunak emango ditu eta ebaluatutako zuzendaritza-taldeak hobetzeko aholkularitza eman eta proposamenak egingo ditu.

4.3 Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, hobeto betetzen laguntzeko.

Prozesuak eta emaitzak hobetzeko ebaluazioa funtsezko elementua dela interpretatuta eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko Hezkuntza Ikuskaritzak erabilitako ereduaren bidez lortutako esperientzia kontuan hartuta, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioari hasiera eman behar izatea planteatzen da.

Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioak funtsezko helburu hauek ditu:

- Ikasleei eman beharreko kalitateko erantzuna bermatzeko asmoz, irakasleen praktika profesionala hobetzen laguntzea,
- Irakasleek beren funtzioak zuzen beteko dituztela bermatzea,
- Profesionalki hobeto aritzeko prestakuntza-premiak antzematea.

Horretarako, irakasletzaren profesioari esleitzen zaizkion gaitasunen arabera definituko du irakasleen perfil profesionala eta diseinatuko du ebaluatzeko prozedura hezkuntza Ikuskaritzak.

Koherentzia emateko eta irakasleen ebaluazioari lotutako alderdi partzialei aurre egiten dieten prozesu guztien gida izateko erreferentzia-esparrua izan behar du eredu horrek.

Gainera, *Heziberri 2020 hezkuntza- eta pedagogi ereduaren esparruan* aurreikusitako ildo estrategikoaren arabera eta ebaluazioaren emaitzen ondorioz, sustatuko da unibertsitateekin, irakasleen hasierako prestakuntzarako, eta irakasleen prestakuntzan eskuduntzak dituzten erakundeekin, etengabeko prestakuntzarako, lankidetzan aritzeko prozesua.

4.4 Ikuskaritzaren txostenak kalitate hobegokoak izaten laguntzeko estrategiak ezarriz hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea.

Ikastetxeak hobetzeko prozesuekin lotura zuzena duten hainbat eta hainbat txosten egin ditu azken ikasturteetan Hezkuntza Ikuskaritzak eta, horregatik, txosten horiek balio erantsia dute eta ikuskarien garapen profesionalerako erronka dira.

Horregatik, txostenen kalitatea segurtatzea beharrezkoa da, haren helburua behar bezala bete dezaten eta Ikuskaritzaren jardueren hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko zuzenean baliagarri izan daitezen.

Helburu hori lortzeko, txostenak behar den epean egitea ez ezik, haien edukiaren kalitatea bermatuko duten estandarrak ere definitu behar dira, haien helburua beteko dela bermatzeko. Egindako txostenen lagin baten jarraipena egingo da, praktika onei, hobetu beharreko alderdiei eta hobekuntza-proposamenei buruz ondorioak lortzeko asmoz. Jarraipen horren ondorioak ikuskariei helaraziko zaizkie, Ikuskaritzako pertsonen parte-hartze aktiboa eragingo duten prestakuntza-saioetan.

4.5 Ikastetxeak ikuskatzea: erreferentziako ikuskariaren jarduera, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko esku-hartze globalaren metodologia batekin.

Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko eta ikastetxeek kalitateko erantzuna ematea, ikasteko prozesuetan ikasle bakoitzaren arrakasta eragingo duena, sustatzeko lagungarri izan behar dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak.

Horretarako, ikastetxeen ezaugarriak eta jarduera sakon ezagutzeak izan behar du abiapuntua, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera egokiagoa eta eraginkorragoa izateko eta ikastetxearen errealitatera egokituago egoteko era erabakigarrian izango baita ezagutza hori lagungarri.

Halaber, ikastetxeak behar bezala aztertu eta baloratu ondoren, horien funtzionamendua eta eskola-erkidegoari eta, oro har, gizarteari ematen dieten hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak eragin behar ditu ikastetxeen ezagutza horrek.

Hau kontuan hartuta, ikastetxeetan esku hartzeko horrela definitzen den eredu baten aldeko aukera egin du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak: ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztiak ikuspegi global eta sistemiko batetik integratuko dituen aritzeko era bat. Esparru horretan hau azpimarratu behar da: gure kudeatzeko sistemak, ikastetxeetan egin daitezkeen jarduera desberdinak prozedurazko eran azaltzen dituen neurrian, eredu hori errazten du eta horren zerbitzuan dago.

Ikastetxeen funtzionamenduan parte hartzen duten aldagai desberdinen arteko harremana kontuan hartzea inportantea da, datuak era isolatuan biltzeak ez baitu haien egoerari buruzko egiazko ikuspegi osoa ematen eta, beraz, ikastetxearen benetako premia eta zailtasunetara egokitutako balorazioak eta hobekuntza-proposamenak ematea zailtzen du.

Bestalde, ikastetxeak ikuskatzeko eredu horrek proaktiboa izan nahi du; izan ere, aurreko ikasturtean ikastetxearen jardueraren gainean egindako balorazioetan antzemandako zailtasun edo hobetzeko arloetan oinarritutako helburuen bidez planifikatuko du ikastetxean bere jarduerak ikuskari bakoitzak ikasturte bakoitzean.

Ikasturte bakoitzaren bukaeran helburu horiek zein mailatan lortu diren baloratuko du, balorazioak eta hobetzeko proposamenak helaraziko dizkio ikastetxeari eta, datorren ikasturteari begira, Ikuskaritzak ikastetxean jarraipena egiteari buruzko gomendio eta proposamenak emango ditu.

Ikastetxeak ikuskatzeko eredu honetan puntu hauek sartzen dira:

- Ikastetxearen koaderno eta berori lotutako datu-basea bezalako tresnak, baita ikuskariek ikastetxeetan eredu horretatik abiatuz egin beharreko jarduera erraztera bideratutako argibide eta orientabideak ere.
- Sailaren zenbait programa eta proiekturen, Hamaika Esku, Hauspoa, Hezkidetza ... , jarraipena.
- Diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetatik, programazio didaktikoak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa, abiatuz EHUK egindako "balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta praktika onak" ikerketaren ondorioei zuzenean lotutako jarduera-ildo batzuen selekzio bat lantzea.

4.6 Eskola-giroaren jarraipena: hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko elkarbizitzaren kudeaketa.

Hezkuntza-printzipioak eta baloreak betetzeaz eta aplikatzeaz arduratzea du, besteak beste, bere funtzioen artean Hezkuntza Ikuskaritzak, haien eginbeharrak betetzeko hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinei aholkularitza eta orientabidea emanez. Eginbehar horien artean, besteak beste, hauek daude: ikasleen osotasun fisiko eta moralaren begirunea, ikasleek tratu umiliagarriak eta eraso fisiko edo moralak pairatu ezin izatea. Halaber, gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaz arduratuko da.

Eskola-jazarpenaren kasuak edo elkarbizitzaren kontrako beste edozein portaera kontrolatzen jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak. *Berdinen arteko tratu txarren kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida* gaurkotuko da, haren helburuari erantzun hobea emateko.

Aurreikuspenen arabera, elkarbizitza- eta hezkidetza-planen jarraipena egingo da, baita plan horiek ikastetxeetan praktikan jartzeko prozesuenak ere. Halaber, elkarbizitza-plan baten eredia egiteko prozesuan parte hartuko da, ikastetxeetan haren egitea edo berrikuspena errazteko.

4.7 Prestakuntzaren hobekuntza eta Ikuskaritzaren garapen profesionalaren sustapena.

Ikuskaritzak jarduteko esparruak eta metodologiak eduki profesional handiko prestakuntza, etengabe garatuko dena, eskatzen du eta horrek informazio- eta prestakuntza-jarduera batzuk planifikatzea exijitzen du; izan ere, berdinen arteko ikaskuntzak toki nabarmena bete behar du jarduera horien artean. Lurralde eta zonaldeetan azpiprozesu desberdinen arduradunak funtsezkoak dira ikaskuntzarako, ezagutzak eta metatutako esperientziak partekatzea, lan-taldeak antolatuz, kasuak aztertuz ..., eramaten duten jarduera kooperatiboak diseinatzearen bidez.

Arreta berezia emango zaie hasierako prestakuntzari eta, harrera-prozesuaren bidez, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren Zerbitzura sartzen diren ikuskarrien tutoretzaren bidez. Ikuskaritzaren kasuan, prozesu hori bereziki nabarmena da, oso esperientzia profesional desberdinak gertatzen direlako, ikuskari guztiek irakaskuntza-funtzioa eta, kasu askotan, zuzendaritza-funtzioa bete duten arren.

Hiru Urteko Plan Orokor honen 6. atalak urteko prestakuntza-planak garatzeko ildo eta orientabideak sartzen ditu.

4.8 Euskarazko komunikazioak sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.

Aurreko planifikazio-aldien helburuak hauek izan dira: Ikuskaritzako plantila hizkuntz eremuan apur-apurka gaitzen joatea; euskararen erabilpena areagotzea; euskara

herritarrekiko harremanetan zerbitzu-hizkuntza bihurtzea; euskara lan-hizkuntza bihurtzea, Ikuskaritzaren jarduera, gainontzeko administrazioena bezala, benetan elebiduna izan dadin, Euskararen Erabilpena Normaltzeko legearen kontrako 169/1983 errekursoari buruz Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 26an emandako 82/1986 sententziaren arabera; izan ere, zuzenbidearen arabera kotzat jo zuen Auzitegi Konstituzionalak errekurso hori.

Ahozko, idatziko eta telematika-komunikazioak *Euskararen Erabilpena Eusko Jaurlaritzan Normalizatzeko Plan Orokorrak (2013-2017)* eta geroago aurrera eraman daitezkeen gainontzeko planek xedatutakora egokitzeko, ondorengo jarduerak egin beharko dira:

- Euskararen erabilpena, maila idatzian batez ere, hobetzea, HE2 egiaztatuta eduki arren zailtasunak dituzten horientzat,
- Euskara barne komunikazio eta txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan erabiltzea,
- Testu zuzen, egoki eta argien bidez Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusten diren kalitateko komunikazioak sustatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak kontuan hartzen dituen aukerak erabiltzea, ikuskarien lanaren ezaugarri espezifikoek ezartzen dituzten mugen barruan.

Helburu horiek garatzeko, Ikuskaritzan euskara erabiltzeko batzordea sortuko da.

4.9 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko antolaketa-eredua gaurkotzea. Ikuskarrien inplikazioan eta parte-hartzean sakontzea.

Hiru Urteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian antolaketa-eredua berrikustea aurreikusten da, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz. Prozedurak egokitu eta bideak bilatuko dira, Ikuskaritza guztiaren, antolaketa-egitura desberdinen bidez, inplikazioa eta parte-hartzea sustatzeko. Halaber, zonalde eta lurralde burutzen eta Ikuskaritza Nagusiaren jarduera-eremuak berrikusi eta egokituko dira:

Ondorengo alderdiak berrikustea planteatzen da:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren araudi berria egitea,
- Merezimendu-lehiaketa deituz zonalde burutzak egonkortzea,
- Ikuskari guztiek Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan parte hartzea,
- Zonaldeetan jardueren arduradunen lidergoa sustatzea,
- Lurraldeetan zonalde burutzen koordinazioa hobetzea.

4.10 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa-sistema berrikustea.

UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera kalitatea kudeatzeko sistema bat definitu du Hezkuntza Ikuskaritzak, helburu hauekin:

- Hezkuntza-erkidegoaren premiei eta itzaropenei erantzuna ematea: ikastetxeei, ikasleei, familiei eta, oro har, Hezkuntza Administrazioako arduradunei.
- Hezkuntza Ikuskaritzari esleitutako jarduerak eraginkortasunez egingo direla bermatzea, betiere aplikatzeko araudia eta Hezkuntza Sailburuordetzak ezarritako argibideak betez.
- Kalitatea kudeatzeko sistema garatu eta hobetzeko prozesuan Hezkuntza Ikuskaritza osatzen duten pertsona guztiei era aktiboan parte hartzeko aukera ematea.

Hiru Urteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren politika eta estrategia berrikusi eta gaurkotuko dira, baita egitekoa, ikuspegia eta baloreak ere. Horiek horrela, ISO 9001:2008 ziurtagiriak jarraituko du eta zerbitzua hobeto emateko kalitatea kudeatzeko sisteman sakonduko da. Gainera, puntu hauek aurreikusten dira:

- Prozesuen mapa eta azpiprozesuen sailkapena eta izendapena berrikustea,
- Ikuskaritzaren atari berria diseinatu eta esperimentatzea,
- Ikuskaritzaren jarduerak Ikuskaritzaren aplikazio informatikora (V-92) apur-apurka gehitzea,
- Ikuskaritza Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren (Euskalit) kide laguntzaile gisa integratzea,
- Kalitatea kudeatzeko sisteman sakontzea, EFQM eredurantz urratsak emanez,
- Barne (horizontala eta bertikala) eta kanpo komunikazioa hobetzea.

4.11 Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko.

Hobetzeko mekanismo indartsuenetariko bat da ebaluazioa. Zentzu horretan, legeriaren arabera Hezkuntza Ikuskaritzari agindutako funtzioa betetzen duten pertsonen ebaluazioa garapen profesionala, eta berorrek in batera zerbitzua bera, hobetzeko bitartekoetako bat da.

Gaurko ebaluazio-ereduak ikuskari-funtzioan jarduteko behar diren gaitasun tekniko eta profesionalak, sozialak, etikoak eta profesionalak ditu erreferentziatzen. Ikuskaritzaren funtzioetan jarduteko orduan eraginkortasuna hobetzera bideratutako ebaluazioa da, batez ere, eta erabilgarritasuna, bideragarritasuna, propietatea (legezko modua eta etikoa) eta zehaztasuna (emaitza nabarmen eta fidagarriak) estandarren arabera egiten da. Ikuskari-funtzioaren gaitasunen indarrezko matriza berrikusi eta gaurkotuko da, hobetzeko.

Ebaluazio honen ikuspegitik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzua hobetzeak bi alde ditu:

- Ikuskaritza Zerbitzuan lan egiten dutenen banakako ebaluazioaren ondorioz gertatzen den hobekuntza,
- Zerbitzuaren hobekuntza, Ikuskaritzako kide guztien ebaluazioaren emaitzak izateagatik eta, ondorioz, zerbitzu osoaren puntu indartsuak eta hobe daitezkeen arloak antzeman direlako.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak emandako argibideen arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunean ari diren pertsonak ebaluatzen jarraitu behar da, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko baldintza den aldetik. Zerbitzuaren gainontzeko kideen ebaluazioa ere egiten jarraituko da.

4.12 Berriztapena eta praktika onen truketzea sustatzeko beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan jardutea. Erasmus Plus programan parte hartzea.

Hiru Urteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarren indartzea sustatuko da, Erasmus Plus programaren KA2 jardueran parte hartuz gaitasun profesionalak areagotzeko asmoz.

Beste herrialde eta hezkuntza-sektore batzuetako kideekin lankidetzari hasiera emateaz gain, beste hezkuntza ikuskaritza eta hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako beste erakunde batzuekin: Unibertsitatea, ISEI-IVEI ... informazioa eta esperientzia truketzea indartuko da.



5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

Prozesuen mapa eta MP02 makroprozesuaren, Ikuskaritzaren aurreko Hiru Urteko Plan Orokorren zerbitzuak identifikatu eta ematea, egitura 2013-2014ko Urteko Planean aldatu ziren. Aldaketa horren ondorioz, Ikuskaritzaren Kalitatearen esku-liburua 2014ko otsailean gaurkotu zen.

2014-15eko ikasturtean egingo diren prozesuen mapa eta azpiprozesuen sailkapena eta izendapena alde batera utzita, ondoren makroprozesuen eta prozesuen egitura adierazten da, gaur egun indarrean dagoen prozesuen maparekin batera.

Ondorengoak dira Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemari erantzuna ematen dioten makroprozesuak:

- MP 01.- Estrategia, planifikazioa eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Agirien kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza.

Ikuskaritzaren estrategia MP 01 makroprozesuaren, “estrategia, planifikazioa eta antolaketa”, bidez garatzen da eta estrategia horrek ematen du zerbitzua emateko eta agiriak eta baliabideak kudeatzeko prozesuak orientatu eta zuzentzeko aukera.

Zerbitzua emateko prozesuak MP 02 makroprozesuaren, “zerbitzuak identifikatu eta ematea”, garatzen dira; izan ere, zerbitzuaren izateko arrazoiak, jardueraren helburu nagusia, dira. Makroprozesu horretan sartutako prozesuak azpiprozesu multzo batean sailkatzen dira, Hezkuntza Ikuskaritzak eman beharreko zerbitzuen edo kasu bakoitzean arreta eman nahi zaion zerbitzu horien hartzaile motaren arabera.

MP 02 “zerbitzuak identifikatu eta ematea” makroprozesu honen barruan 3 prozesu hauek sartzen dira:

- PR Ebaluazioa

Ikastetxeen edota pertsonen ebaluazioari lotutako azpiprozesuak. Jarduera horien eginkizun nagusia ebaluazioa da. Horretarako, prozedura espezifiko bat ezarri da eta berorren emaitza administrazioa edo interesatuak berak bezalako entzuleei helarazi behar zaizkie.

- PR Ikastetxeak ikuskatzea.

Kontrolari, ebaluazioari, aholkularitzari, orientabideari eta informazioari lotutako azpiprozesuak. (“Erreferentziako ikuskariaren esku-hartze globala” deritzon metodologiaren bidez gauzatuko dira, batez ere, jarduera horiek era sistematikoan ikastetxeetan).

- PR Eskaerei eman beharreko arreta.

Lankidetzan aritzearen funtzioari lotutako azpiprozesuak dira. Gehienetan Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuen eskaerei erantzuna emateko egiten diren jarduerak dira. Horrela sailka daitezke:

- 1) Lankidetzan aritzeko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak. Jarduera horietan, berorien konplexutasunarengatik, gainontzeko azpiprozesuen antzera definitu eta planifikatu behar ditu Ikuskaritzak berak.



- 2) Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenei erantzuna ematen dieten jarduerak. Atal horretan Ikuskaritza Zerbitzuaren edozein hartzailearen eskariz edo Ikuskaritzaren beraren ekimenez, egindako ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz, sor daitezkeen txosten guztiak sartzen dira.
- 3) Parte hartu eta laguntzeko eskaerei erantzuna ematen dieten eta haien jabea Ikuskaritza bera ez den jarduerak (epaimahaietan, batzordeetan, ... parte hartzea).

Prozesu horiek azpiprozesuetan sailkatzen dira eta azpiprozesu horiek Urteko Planetan konkretatzen dira. Azpiprozesuak ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzeta-funtzioen arabera sailkatuta eta kodifikatuta daude. Haietako gehienak ebaluazio- eta kontrol-funtzioetan sartzen dira, zeharkako izaera du erabat aholkularitzak eta, horregatik, ez dago azpiprozesu espezifikorik. Lankidetzeta, batez ere, eskaera eta jakinarazpenetan oinarritutako jarduera baten bidez gauzatzen da. Kalitatearen esku-liburuak aipatutako zerrenda sartzen du.



NEURKETA- ETA AZTERKETA-PROZESUA

06 MP.- Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza.

0601 PR
Gogobetetze
mailaren neurketa

0602 PR Iradokizunak,
kexak eta erreklamazioak

0603 PR Barne-
auditoriak

0604 PR Desadostasunen, zuzentze-
ekintzen eta prebentzio-ekintzen kudeaketa

ZERBITZUA EMATEKO PROZESUA

02 MP.- Zerbitzuak identifikatzea eta ematea

PROZESU ESTRATEGIKOA

01 MP.- Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza.

0101 PR Xedea identifikatzea eta berrikustea

0102 PR Ikuskaritzaren estrategia: Hirurteko Plana, Urteko Plana eta Sistema

0103 PR Antolaketa-egitura eta LPZ egitea elaboración de la R.P.T

0104 PR Barne- eta kanpo-komunikazioa

EBALUAZIO EKINTZAK, IKASTETXEAN ESKUHARTZEA, ESKAERAK, LANKIDETZAK ETAR.



KONTROLA, AHOLKU EMATEA, TXOSTENAK, ESKUBIDEEN BERMEA, SISTEMAREN INFORMAZIOA, ETAB.

03 MP.- Giza baliabideen kudeaketa.

0301 PR Langileak hartzea

0302 PR Langile berrien harrera

0303 PR Langileen prestakuntza eta euskalduntzea

04 MP.- Kudeaketa dokumentala.

0401 PR Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola

05 MP Baliabide materialen kudeaketa.

0501 PR Baliabide materialak hartzea

DOKUMENTUEN ETA BALIABIDEEN KUDEAKETA



6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

Hiru Urteko Plan Orokor honen 4.7. atalean adierazitakotik abiatuta, Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala hobetzeko prozesuari eman nahi zaio lehentasuna, garapen profesionalaren funtsezko zutabeetako bat baita prestakuntza. Prestakuntza hori aurrera eramateko zenbait modu sustatuko dira:

- Ikuskariei planifikatutako jarduerak egiten lagunduko dieten gaitasun-elementuak eskaini nahi dituen prestakuntza da plan honi lotuta dagoena, prestakuntza instituzionala deritzona da eta, normalean, ikasturtean zehar, ostiraletako bileretan, egiten da. Prestakuntza instituzionala parte-hartzailea izatea proposatuko da, ahal izanez gero saioaren zati inportante bat lan praktikoari, talde txikietan edo prestakuntzan parte hartzea sustatuko duten beste modalitate batzuen bidez, eskaintzeko. Prestakuntza mota horretan Ikuskaritzaren txostenen kalitatea, Ikuskaritzak hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko estrategia gisa, areagotzera bideratutako prestakuntza-jarduerari emango zaie lehentasuna (esku hartzeko oinarritzko ildoan 4.4. puntua),
- Prestakuntza instituzionalaren osagarri gisa, batera jartzeari, esku-hartzea gauzatzeko moduari buruzko eztabaida profesionalari eta planifikatutako tresnak erabiltzeari dedikatutako informazio- eta prestakuntza-saioak Ikuskaritzaren lanaren beste zutabe bat dira, ematen baitute esku-hartzeetan irizpideak bateratzeko aukera. Prestakuntza mota hau Urteko Plan bakoitzaren azpiprozesu esanguratsuenen jardueraren hasieran gauzatuko da,
- Euskararen erabilpena sustatzeko prozesuari dagokionez, IRALE programak ematen dituen aukerak, Ikuskaritzaren lanaren mugak kontuan hartuta, erabiliko dira. Zehatzago esanda, liberazio-ikastaro bereziak, mugatuak, antolatuko dira (5 egun aldi zehatz batzuetan), baita Saileko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan aztertuko diren beste aukera batzuk ere,
- Bestalde, emango zaie ikuskariei izaera zientifikoko, teknikoko eta profesionalako ekitaldietara, ikuskarien kolektiboari lotutako gertaeretara, elkartze-ekitaldietara edo sindikatuekin zerikusia dutenetara joateko aukera. Jarduera horietan parte hartzeko, ikuskari nagusiak eman beharko du derrigorrean baimena, Ikuskaritzako lurralde buruaren oniritziarekin.

Zonalde-taldeen koordinazioa garapen profesionala ahalbidetzeko beste moduetako bat da eta, horregatik, oreka bat izan beharko da prestakuntza instituzionalari eskainitako denboraren eta zonalde mailako bilerei eskaintzen denaren artean. Kasuak zonaldeetan aztertzea garapen profesionalerako prozedura ona da.

Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntza-premiak jasotzean izan diren emaitzen arabera (hartzaileak pozik dauden neurtzeko inkesta), ondorengo alderdiei emango zaie lehentasuna:

- Hezkuntza-legeria. Araudi berria eta berau garatzeko prozesua,
- Aplikazio informatikoa, erabilpena eta funtzionamendua,
- Ikuskaritza Planak garatzeko prozesuari zuzenean lotutako alderdiak,
- euskara
- prestakuntza juridikoa, administrazio-prozedura,
- ebaluazioa (zuzendaritza-funtzioa, diagnostikoa, ...),
- ingelesa,
- elkarbizitza,
- programazio didaktikoak,

- irakasleen titulazioak.

Prestakuntza-jarduera horiek prestakuntzarako Hezkuntza Ikuskaritzari esleitutako aurrekontua izango dute eta, ikuskari nagusiak horrela zehazten duen kasuetan, derrigorrezkotzat joko dira.

7.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA

7.1. ANTOLAKETA

Ikuskaritzaren Plan Orokor hau, Urteko Planetan konkretatzen dena, Lurralde Burutzek zuzendutako lurralde mailako Ikuskaritza Planen bidez garatu eta osatuko da. Lurralde plan horiek, beharrezkotzat jotzen badira, Zonalde Burutzek egindako ekarpen espezifikoak sartuko dituzte. Lurralde mailako Ikuskaritza Plan horiek, gutxienez, atal hauek sartuko dituzte:

- Helburuak (urteko planarenak bezalakoak ez diren kasuetan bakarrik).
- Ikastetxeak ikuskariei esleitzea.
- Zaintzen planifikazioa.
- Aurrera eraman beharreko jardueren arduradunak diren lurralde ikuskariak izendatzea.
- Lurralde Burutzak beharrezkotzat jotzen dituen beste batzuk.

Ikuskaritzako kideek beren erreferentzia-ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea Urteko eta Lurralde Planetan zehazten denaren menpe egongo da. Edonola ere, ikastetxeetan egiten den jarduera ikuskatu behar du derrigorrean ikuskari bakoitzak eta ahalik eta azkarren eman beharko diete ikastetxe horietan gertatzen den edozein intzidentzia nabarmenen berri lurralde burutzei. Informazio hori lurralde ordezkariari eta ikuskari nagusiari berehala helarazi behar diete lurralde burutzek.

Ikuskariak bere erreferentzia-ikastetxeetan eragin handiagoa izango duela segurtatzeko asmoz, esleitu zaion ikastetxe bakoitza, araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituen, hiru alditan, gutxienez, bisitatu beharko duela zehaztu da.

Zentzu horretan, lehen bisita bat egingo da ikasturtearen hasieran ikastetxe bakoitzera. Bisita horrek emango dio ikuskariari ikastetxe horretan dauden arazo guztiak ezagutzeko eta horren jarduera hobetzeko proposamenak egiteko aukera.

Beste zonalde batzuetara joatea eskatzen duten jarduerak badira, Lurralde Burutzaren baimena izan beharko dute.

Gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik zonalde buru batek aldi batean huts egiten badu, indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituen ikuskari batek egingo ditu haren funtzioak.

7.2. IKASTETXEAK IKUSKARIEI ESLEITZEA.

Hiru Urteko Plan hori gauzatzen den urteetan, zonalde bakoitzeko ikastetxeak ikuskariei esleitzeko irizpideak konkretatu beharko dira. Indarreko legeriaren arabera hezkuntza-ibilbideak osatzen dituzten ikastetxeak ikuskari berari esleitzeko printzipioa hartuko da irizpide horietan kontuan.

Indarreko legeria hori aldatzen ez den bitartean, esleitzeko irizpideak hauek izango dira:

1. Erreferentziako ikuskari bakarra izango da ikastetxeko, ikastetxe horrek ematen dituen etapak eta mailak alde batera utzita; dena den, hau ez du izango zonalde bakoitzean ikastetxeak ezagutzeko oztopoa eta, ezagutza horri esker, beste ikuskari batzuek izango



dute esleitutakoak ez diren beste ikastetxe batzuetan esku hartzeko aukera, bai urteko planen helburuei erantzuna emateko, bai beste edozein premiatarako. Gainera, zerbitzu-arrazoiengatik, ikuskari nagusiak edo Lurralde Burutzak edozein ikuskariari egin ahal izango dio esleitutakoak ez diren ikastetxeetan zirkunstantzialki esku-hartzeak egiteko eskaera.

2. 2002ko ekainaren 18ko aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenei esleituko zaizkie kudeaketaren aldetik zuzenean Prestakuntza eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren menpe dauden ikastetxe publiko eta pribatuak. Ikastetxe horien kopurua eta zonaldeko ikastetxe guztiak kontuan hartuta, ikuskari horiek zonalde horretako beste ikastetxe batzuk eduki ahal izango dituzte esleituta, heziketa-zikloen kopuru esanguratsua dutenak batez ere.

3. Oreka bat izan behar da zonalde bakoitzeko ikuskariek, ikastetxeak direla-eta, dituzten lan-kargak banatzeko orduan. Horretarako, Lurralde Burutzek ondorengo zirkunstantziak hartuko dituzte kontuan:

- Ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatuen kopurua ikuskari bakoitzarentzat.
- Irakasle/ikastetxe ratioa haietako bakoitzean.
- Ikastetxeen eta Ikuskaritzaren egoitzaren arteko distantzia geografikoa.
- Konplexutasun bereziko ikastetxeak.
- Irakaskuntza arautua eta arautu gabekoa, Batxilergoa, arratsaldean ematen diren heziketa-zikloak edo Helduen Hezkuntza dituzten ikastetxeak.

4. Lurralde Burutzek gutxituko dute Zonalde Burutzei eta, Urteko Planak aurrera eramateko prozesuan dedikazio espezifiko edo trinkoko eginkizunetan lan egiteko, Ikuskaritza Nagusiak edo Lurralde Burutzak izendatutako ikuskariei esleitutako ikastetxeen kopurua.

5. Ikastetxeak ikuskariei esleitzeko prozesuari dagokionez, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Hezkuntza-ibilbide bereko ikastetxeak ikuskaria bakoitzari esleitzeari emango zaio lehentasuna.
- Irakaskuntzan edo ikuskari-funtzioan izandako esperientzia eta ikuskarien prestakuntza hartuko dira kontuan ikastetxe mota desberdinak esleitzeko orduan.
- Berritzeguneak eta lurralde mailako zentroak Zonalde Burutzei, batez ere, esleituko zaizkie.

6. Ikastetxeak esleitzeko lehen aipatutako irizpideak errespetatuta, herri txikietako ikastetxe guztiak ikuskari bakar bati esleituko zaizkio.

7. Gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik ikasturtean ikuskariren batek huts egiten badu, tokian tokiko Zonalde Burutzaren proposamenez zonalde horretako beste ikuskari batek edo batzuek bere /beren gain hartuko du /dute ez dagoen ikuskariren ikastetxeei aldi horretan arreta ematearen ardura.



7.3. ZAINZA EGUNEAN KANPOKO ESKAEREI ARRETA EMATEKO PROZESUA ANTOLATZEA. KOORDINAZIO-BILERAK.

Ikastetxeei eta, oro har, publikoari derrigorrean arreta eman behar izateak ikuskariak zonalde bakoitzaren egoitzan egunero egotea eskatzen du. Horregatik, astean zaintza-egun bat, gutxienez, ezarriko da ikuskari bakoitzarentzat eta horren berri emango zaie erreferentziako ikastetxeei.

Zaintza-egunean kanpoko eskaera horrela definitzen dugu: edozein iradokizun, galdera, kexa edo erreklamazio, ahoz edo idatziz eginda eta edozein ikuskariri edo zerbitzuak Hezkuntza Ikuskaritzan ematen dituen administrazio-pertsonalari zuzendua.

Ikastetxeei buruzko kanpoko eskaera gehienei erreferentziako ikuskariak arreta ematea komeni da eta, horregatik, bulegotik at egoteagatik edo eten ezin duten jarduera bat izateagatik une horretan eskaerari arreta ematerik ez duten erreferentziako ikuskariak ordezkatzeko egoeratzat jo behar da zaintza.

Eskaerak telefonoz edota eskatzaileak berak Hezkuntza Ikuskaritzaren bulegoetara egindako bisita baten bidez jaso daitezke. Administrazio-pertsonalak edo zaintzako ikuskariak ematen badiote eskaerari arreta eta eskaera hori premiazkoa edo garrantzitsua ez bada, kontsulta-orri edo ohar baten bidez jakinaraziko zaio erreferentziako ikuskaritari. Orri horretan eskaeraren datuak eta egin zuen pertsonarekin harremanetan jartzeko datuak jasota agertuko dira.

Eskaera premiazkoa edota garrantzi handikoa bada, administrazio-pertsonalak zaintzako ikuskaritari jakinaraziko dio. Zaintzako ikuskari hori eskatzailearekin egongo da, Lurralde Burutzari berehala emango dio gertatutakoaren berri eta eskaera kontsulta-orrian erregistratuko du. Geroago, kontsulta-orri hori erreferentziako ikuskaritari entregatuko dio, eskaera zein den jakin dezan eta behar den erantzuna eman diezaion. Kontsulta-orri horiek ez dira administrazio-prozedura bati hasiera emateko baliagarri. Kasu horietan zaintzako ikuskariak Lurralde Burutzen argibideen arabera jokatuko du eta eskaera, behar izanez gero, intzidentzien programa informatikoan erregistratuko du.

Zonalde Burutza bakoitzak asteko zaintzak antolatuko ditu eta egun bakoitzean hezkuntza-maila desberdinetan ezagutza espezifikoak dituzten zaintzako bi ikuskari (Eibarren izan ezik), gutxienez, egotea bermatuko du. Halaber, haien erreferentziako ikuskariak zaintza zein egunetan duen jakinaraziko die ikastetxeei eta premiazkoak ez diren eskaera eta informazioak egun horretan bideratzeko eskatuko die.

Ikuskari bakoitzari esleitutako zaintza-eguna errespetatuko da. Justifikatutako arrazoiren batengatik ezin bada, tokian tokiko Zonalde Burutzari emango zaio horren berri eta Burutza horrek zaintza hori ordezkatzeko era erabakiko du.

Ikuskaritzako taldeen koordinazioa eta prestakuntza segurtatzeko asmoz, asteko beste egun bat, ostirala zehatzago esanda, ezarriko da, Ikuskaritzako kide guztiak beren egoitzan egon daitezen edo deitzen diren prestakuntza-saioetan parte har dezaten.



7.4. LAN-TALDEAK ETA BATZORDEAK

Indarreko legeriak finkatzen dituen Lurralde Arteko eta Lurraldeko Koordinazio Batzordeek ez ezik, Plan hau indarrean dagoen aldian ondorengo lan-taldeek eta batzordeek ere funtzionatuko dute:

Kalitate Batzordea

Lurralde bakoitzeko ikuskariek osatuko dute ikuskari nagusiaren menpeko batzorde hori eta Ikuskaritzak egiten dituen jarduera guztiak etengabe hobetzea izango du helburu. Funtzio hauek izango ditu:

- Kalitatea kudeatzeko Ikuskaritzaren sistemaren dokumentazio guztia kontrolatu, berrikusi eta gaurkotzea.
- Jarduerak garatzeko prozesuan sistemaren eskaerei buruzko aholkularitza talde desberdinei ematea.
- Kalitatea kudeatzeko Ikuskaritzaren sistema aplikatzean proposatzen diren aldaketak eta jarduerak ikuskari nagusiari helaraztea, aztertu eta, agian, onartzeko.
- Kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan edo ikuskari nagusiaren aginduz esleituta duen beste edozein.

Euskara erabiltzeko batzordea.

Lurralde bakoitzeko ikuskariek osatuko dute ikuskari nagusiaren menpeko batzorde hau.4.7. atalean ezarritakoa betetzea izango du helburu eta funtzioa hauek beteko ditu:

- Ikuskaritza Nagusiarekin lankidetzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak finkatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren estilo-eskuliburua egitea.
- Elebitan idazteko lana zuzendu eta orientatzea.
- Euskararen araudiari eta behar bezalako erabilpenari buruzko prestakuntzan liderraz izatea.
- Ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

Berdintasun Planerako Batzordea

1/2004 legeak, 4/2005 legeak eta 2/2006 lege organikoak xedatutakoaren arabera, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ikastetxeek hartzen dituzten neurrien jarraipena egiteko ardura dute Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuek.

“Hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako gida-planean Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Berritzegunea, Berritzapen Zuzendaritza, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI) hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzeko arduradunak izendatzea “ atalean hau adierazten da:

“Aipatutako zerbitzuek, beren jarduera-eremu desberdinetan, hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari emango diete lehentasuna eta, horregatik, prestakuntza izango dute, koordinazioa sustatuko da eta hezkidetzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloko prestakuntzaren baldintza bete behar duen lanpostu bat izango zerbitzu haietako bakoitzean.

“Gainera, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa landuko dituen eskolaren eredia gauzatzeko prozesua aztertu eta berorren jarraipena egingo du ISEI-IVEIk “. Jarraipen horretan Hezkuntza Ikuskaritzak hartuko du parte.

Aurrekoa betetzeko asmoz, Berdintasun Batzorde bat eratuko da eta haren kideek funtzio hauek izango dituzte:

- Hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako Saileko gida-planaren helburu estrategiko bakoitzean Ikuskaritza inplikaturako dagoen jarduerak betetzea sustatzea,
- Prozedurak ezartzea, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko Sailak proposatutako jarduerak ikastetxeek aurrera eramaten dituztela ikuskatzeko,
- Berdintasunaren arloko Ikuskaritzaren prestakuntza antolatzea,
- ISEI-IVEIrekin lankidetzan jardutea hezkidetzara eta genero-indarkeriaren prebentzioa landuko dituen eskolaren eredia aztertu eta horren jarraipena egiteko prozesuan.
- Ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

Prozesuetako eta azpiprozesuetako taldeak.

Urteko Planen prozesuak edo azpiprozesuak planifikatzeaz arduratzen diren taldeek funtzio hauek izango dituzte:

- Esleitutako prozesua edo azpiprozesua diseinatu eta planifikatzea.
- Diseinua, prozesua edo azpiprozesua egiteko erabiliko diren planifikazioarekin eta lan-metodologiarekin, proposatzea, Lurralde Arteko Batzordean onartzeko.
- Prozesua edo azpiprozesua aurrera eramateko behar diren argibide operatiboak eta dokumentazioa hedatzea.
- Prozesua edo azpiprozesua lurraldeetan gauzatzeko prozesuan liderra izatea eta berori koordinatzea.
- Behar den txostena egitea, prozesua edo azpiprozesua bera gauzatzeko prozesua ebaluatuz eta hobetzeko egin daitezkeen jarduerak proposatuz.
- Ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

7.5. ASTEKO AGENDA

Ikuskari-funtzioaren izaerak eta berorren jardura bereziak ematen dute ikuskari bakoitzak jarduerak planifikatzeko lana malgutasunez antolatzeko aukera eta zonalde buruari emango dio horri buruzko informazioa.

Hezkuntza Ikuskaritzaren asteko jarduerak planifikatu, aztertu eta kontrolatzeko asmoz eta, halaber, ikasturtean gauzatutako jardueren laburpena gauzatzeko, Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V92) agenda bete behar dute ikuskari guztiek derrigorrean, aurreikusitako jardueren asteko planifikazio gisa. Agenda horrek programatutako bisita eta irteerak sartuko ditu. Planifikazio horren ondoren, egindako jardueren errealitatera egokituko da.

8.- HIRU URTEKO PLAN OROKORRAREN EBALUAZIOA.

Hiru Urteko Plan Orokorra Urteko Planetan konkretatzen da eta plan horiek ikasturte bakoitzaren bukaeran ebaluatuko dira. Hiru Urteko Plan Orokorren ebaluazioa haren eremuko azken Urteko Planaren ebaluazioaren barruan egingo da, hiru Urteko Planen ebaluazioak eta berrikuspen-txostenak kontuan hartuta.



Horregatik, Hiru Urteko Plan Orokorraren ebaluazioan Urteko Planen ebaluazioetan eta Ikuskaritza Nagusiak egiten dituen sistemaren berrikuspenetan kontuan hartzen diren analisi eta ondorio berberak hartuko dira kontuan.

Hiru Urteko Plan Orokorraren ebaluazioa hirugarren Urteko Planaren azken memorian, Ikuskaritza Nagusiak egindakoa, jasota agertuko da eta, halaber, sistemaren berrikuspena egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 2a

Izpta: Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza sailburuordea


ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK, HELBURUAK GARATZEKO (2014-2017ko HIRU URTEKO PLAN OROKORRA)

HELBURUAK	ESKU HARTZEKO ILDO OROKORRAK	JARDUERAK 2014-2015eko URTEKO PLANA	JARDUERAK 2015-2016ko URTEKO PLANA	JARDUERAK 2016-2017ko URTEKO PLANA
1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.	Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.	Hobekuntza Planen jarraipena 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren kontrola Lehen Hezkuntzako 3.eko ebaluazioan parte hartzea.	2015eko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzei buruzko ikastetxeen txostenak baloratzea. Lehen Hezkuntzako 3.ean eta 6.eko ebaluazioan parte hartzea.	Hobekuntza-planen jarraipena. Lehen Hezkuntzako 3., DBHko 4. eta Batxilergoko 2. ebaluazioetan parte hartzea.
1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.	Ikastetxeak hobetzen laguntzeko zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.	Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeke araudia gaurkotzea.	Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.	Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. Zuzendariak aukeratzeko prozesua (araudiaren arabera).
1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.	Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, hobeto betetzen laguntzeko.	Irakasleen perfla egiteko prozesuari hasiera emango dion lan-talde bat sortzea.	Irakaslearen perfla profesionala egitea eta unibertsitatearekin eta beste instituzio batzuekin kontrastatzea. Ebaluatzeke prozedura eta haren pilotatzea diseinatzea.	Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa ezartzea. Eredua etapa eta irakasleen egoera desberdinetara egokitzea.
2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.	Hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku hartzearen kalitatea areagotzeko lagungarri izango diren estrategiak ezarriz.	Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.	Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.	Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.
2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea. 3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea. 4. Hezkuntza Sailaren programa eta proiektuak ikastetxeetan nola garatuko diren kontrolatu eta ebaluatzea.	Ikastetxeen ikuskatzea: erreferentziako ikuskariak esku hartze globaleko metodologia batekin jardutea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.	Hamaika Eskuren (1) jarraipena Programazioen jarraipen eta ebaluazioa, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa. Ikasturtearen hasierako esku-hartzea. Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).	Hamaika Eskuren (2) jarraipena Ikastetxeak hobetzeko prozesuaren jarraipena egitea eta alderdi nabarmenen ebaluazioa. Ikasturtearen hasiera eta bukaerako esku-hartzea. Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).	Hamaika Eskuren (3) jarraipena. Ikastetxeak hobetzeko prozesuaren jarraipena egitea eta alderdi nabarmenen ebaluazioa. Ikasturtearen hasiera eta bukaerako esku-hartzea. Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).
2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea. 3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea.	Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitza kudeatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak beteko direla bermatzeko.	Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta ikastetxeetako elkarbizitzaren kudeaketa. Eskola-jazarpeneko protokoloa gaurkotzea. Elkarbizitza eta Hezkidetzaren Planen gida egitea.	Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta ikastetxeetako elkarbizitzaren kudeaketa. Elkarbizitza-Planen eta ikastetxeetan aplikatzeko eraren kontrola eta jarraipena egitea.	Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena Elkarbizitza-Planen eta ikastetxeetan aplikatzeko eraren kontrola eta jarraipena.
5. Ikuskariak Hiru Urteko Plan Orokor honen ondoriozko premien arabera prestatzea.	Prestakuntza hobetzea eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.	Urteko Planen jarduera-ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea. Ebaluazioari eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.	Urteko Planen jarduera-ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea. Ebaluazioari eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.	Urteko Planen jarduera-ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea. Ebaluazioari eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.



ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK, HELBURUAK GARATZEKO (2014-2017ko HIRU URTEKO PLAN OROKORRA)				
HELBURUAK	ESKU HARTZEKO ILDO OROKORRAK	JARDUERAK 2014-2015eko URTEKO PLANA	JARDUERAK 2015-2016ko URTEKO PLANA	JARDUERAK 2016-2017ko URTEKO PLANA
6. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.	Euskaraz komunikatzea sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.	Ikuskaritzan euskara erabiltzeko batzordea sortzea. Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.	Ikuskaritzan euskara erabiltzeko plan bat zehaztea. Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.	Euskara erabiltzeko planaren garapena eta jarraipena. Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.
7. Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredu berrikustea.	Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko antolaketa-eredua gaurkotzea eta ikuskarien inplikazioan eta esku-hartzean sakontzea.	Ikuskaritzaren araudia aztertu eta egitea. Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa. Ikuskarri guztien parte hartzea, ikuskaritzaren jardura kudeaketan	Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea.	Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea.
8. ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurreratzea.	Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko kudeaketa-sistema berrikustea.	Ikuskaritzaren politika eta estrategia aztertu eta egokitzea. Prozesuen mapa, kodeak eta azpi-prozesuen izenak berrikustea. V92 aplikazioan kudeaketa apur-apurka ezartzea. Ikuskaritzaren atari berria diseinatu eta esperimintatzea. Hezkuntza Ikuskaritza Euskalit-ekin lankidetzan ari diren kideen kolektiboan integratzea.	V2 aplikazioan kudeaketa apur-apurka ezartzea. Ikuskaritzaren kudeaketa atari berria apur-apurka ezartzea. Ikuskaritzaren kalitate-politika berrikustea. Autoebaluazioaren zerbitzua (EFQM ereduaren arabera) erabiltzea.	Ikuskaritzaren kudeaketa atari berria apur-apurka ezartzea. Ikuskaritzaren zerbitzu-gutuna prestatzea. Kanpo ebaluazioaren eskaera: alderatzea ...
9. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Ikuskaritariaren garapen profesionala hobetzeko, ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Zerabitu-eginkizunetan ari diren ikuskariei prozedura aplikatzea.	Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matrizarik buruz hausnarketa eta analisia egitea. Berori gaurkotzea.	Gaitasunen matriza berria oinarrituta Ikuskaritzaren autoebaluazioa. Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei prozedura aplikatzea.
10. Hezkuntza-munduko beste organismo edo erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko ildoak ezartzea.	Berriztapenari eta praktika onen trukatzeari laguntzeko, beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. Erasmus Plus programan parte hartzea.	Erasmus Plus-en parte hartzeko eskaera egitea. Ekimenari jarraipena emateko harreman eta itunak ezartzea. Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea.	Programaren jarduerak (onartuz gero) lehen kurtsuan garatzea. Behar izanez gero, programa berri bat eskatzea. Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea.	Programaren jarduerak (onartuz gero) lehen kurtsuan garatzea. Behar izanez gero, programa berri bat eskatzea. Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea.F6